



Frantziako lehendakaritzarako hauteskundeetan lehen itzuliari so

 JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Macron eta Le Penen artean iraganen da bigarren itzulia, 2017ean bezala

Duela bost urtekoa errepikatuko da apirilaren 24an: Emmanuel Macronen eta Marine Le Penen artean izanen da lehia. Haatik, lehen itzuliko emaitzei begiratzuz gero, aurreikustekoa da alde estuagoa izanen dela bien artean. 2017an Macronek %66 eta Le Penek %34 jaso bazuten, aldi honetarako oso hurbil kokatzen dituzte lehen zundaketek: Ifop zundaketa institutuaren arabera %51 luke Macronek eta %49 Le Penek; Opinionway edota Ipsos-en arabera, %54 Macronek eta %46 Le Penek eta Elabe-ren arabera, %52 Macronek eta %48 Le Penek.

Botoen %21,95 bildurik, doi doietarik kokatu da hirugarren ezker muturreko Jean-Luc Melenchon, eskuin muturreko hautagaiarekin soilik 0,8 puntuko alde ukanez. Nahiz eta 2017an baino emaitza hobekoak lortu –bi puntu gehiago–,

beste behin ere ez da bigarren itzulian egongo. Apirilaren 24ari begira, Le Peni botorik ez bideratzeko dei argia egin die bere hautesleei. Pentsa zitekeen bezala, ez du Macronek alde bozkatzeko dei argirik egin. Mezu bera zabaldu dute ezker muturreko Fabien Roussel komunistak (%2,31) eta Philippe Poutouk (%0,77).

Eskuin muturrari bidea mozteko Macronek alde bozkatzeko deia egin dute, ordea, Alderdi Sozialistako Anne Hidalgo (%1,74), Yannick Jadot ekologistak (%4,48) eta eskuineko Les Republicains alderdiko Valerie Pécressek (%4,79). Le Penen alde bozkatzeko deia argia egin dute, haatik, Eric Zemmourek (%7,05) eta Nicolas Dupont-Aignanek (%2,07).

Nola ez, abstentzioa izan da hauteskunde horietako garailetarikoa: lau bozkatzailetarik bat ez da joan bozkatzera.

ESKUIKIN ETA EZKER HISTORIKOEN PORROTA BORTITZA

2017an sortu zuen La République en Marche alderdia Macronek, politika egiteko modu zaharrarekin haustura hitz emanez –bost urte geroago argi gelditu da ez dela hausturarik egon–. Bozketa honetan agertu da ezkerreko eta eskuineko alderdi klasikoaren bukaera: ez du bat ez besteak %5aren langa gaintitu –Alderdi Sozialistaren 2017ko porrota are bortitzagoa izan da aurten %6,36tik %1,74ra pasaz; eta eskuina %20,10tik %4,79ra jeitsi da–. Macron indartsu aterata da, 2017an baino emaitza hobekoago eginez eta parean ditu bi muturrak: Le Pen eta Melenchon. Irabazteko, ezkerreko botoak beharrezkoak izanen ditu Macronek. Sekula baino gehiago, abstentzioak ukanen du eragin handia bigarren itzulian. ●

